



**GANSO&CIA**  
Profesionalni idoliti since 2007

-ren ikuskizuna


# MUNA



# MUNA

Lehen haurtzarorako aretoko antzerki-ikuskizuna.

MUNA lurpean bizi da, basoko animalia bat bezala libre, naufrago bat bere irlan bezala. Goizero ibiltzen da parkean, ahaztutako altxorren bila. Egunero istorio bera, harik eta egun batean ilargiraino igotzeko modua bilatzea erabakitzen duen arte!!







Oparia baztertu eta kutxarekin jolasten dutenentzako txango bisual eta soinoduna.  
Ordularirik, ezinezkorik eta araurik gabeko leku batera bidaia.  
Zuzeneko musika, lata desafinatuekin eta jostailuzko gitarrarekin.  
Kolorea eta berotasuna, erdibana.

*"Mundua gauzaz beteta dago, eta benetan beharrezkoa da norbaitek aurkitzea."*

Astrid Lindgren, Pippi Galtzaluze



Antzerki gestuala Generoa

Testurik gabe Hizkuntza

45' Iraupena

2-6 urte Adin gomendatua









*[...] Horrela izanik, oso ikuskizun lasaia planteatu dute, eta adin horietako umeen bizipen hurbil eta jostagarriak izan dira lanaren oinarria, konpainiaren ohiko finezia eta gauza arruntei esangura poetikoa ateratzeko gaitasuna beti presente egon direla. Parke batean gertatu da guztia, ume gehienek jostalekua parkeak izaten baitira, baina zabuak, tobogana eta gainontzeko elementuak aitzakia besterik ez dira izan apurka-apurka irudimenerari ekin eta objektu arruntetik latazko panpina, funikularra, hegoak eta batek daki zer gehiago sortzeko.*

*Autobusean noala eta aurreko umemokoa pantaila batek xurgatuta ikusten dudan aldiro pena sentitzen dut beragatik. Eta gu guztiongatik, bide batez esanda. Balio dezatela honelako lan fin eta poetikoek hazten ari diren izaki samur horiei erakusteko mundu zoragarri bat dagoela esku-eskura dauzkaten objektu apal eta sinpleenetan!*

**Agus Pérez, Berria Egunkaria, 2022ko urriak.**





ZUZENDARITZA : Gorka Ganso

ANTZEZLEA : Cecilia Paganini

ZUZENeko MUSIKA : Txefo Rodríguez

ARGIZTAPEN DISEINUA : Ion Chávez

ESZENOGRAFIA : GANSO&Cía, Oscar de Paz

ZUZENDARITZA MUSIKALA : Quico Pugès

JANTZIAK : Cecilia Paganini

ARGAZKIAK : Asier Bastida

TEKNIKARIA : Unai Barrio

DISEINU GRAFIKOA : Sr Sommer

EKOIZPENA : GANSO&Cía

BANAKETA : Rocío Pindado (PORTAL 71)





info@ganso.info

www.ganso.info



@GansoCia

Banaketa:



Kidetza:



Konpainia egoilarra:



Laguntzailea:

